

eskolako agenda 21

tolosaldea 2012-13

ESKOLA AGENDA 21
PARTAIDETZAN HEZITZEKO PROIEKTUA

- Aduna
- Alegia
- Anoeta
- Asteasu
- Berastegi
- Bidegoian
- Ibarra
- Irura
- Tolosa
- Villabona
- Zizurkil

Askotan helduok lehenago haur izan ginela ahaztu eta beraien ikuspegitik gauzak aztertzeko gaitasuna galtzen dugu. Gogoratzen al gara nola ikusten diren gauzak metro bateko altueratik? Ba al dakigu benetan zer nolako parkea nahi duten? Ez dugu ahaztu behar gauza txikiak hobekuntza handiak ekar ditzaketela!

EA21 proiektua ikasgeletan hasten da, aukeratutako gaiari buruzko sentsibilizazio lanak egiten, baina lana ez da eskolara mugatzen, haratago doa, herriko plangintzetan ere parte hartzen dugu.

Herriari "erradiografia" egiten diogu, bere egoera aztertzen dugu eta diagnostikoa eginda daukagunean, aurkitutako egoera hobetzeko neurriak bilatzen ditugu. Alde batetik, herritar bezala konpromiso batzuk hartzen ditugu, eta bestetik, udalarekin elkartzen gara eta proposamenak egiten dizkiogu.

Helburua argi dago: denon beharrei egokitutako herria eta gizartea eraikitzea, gure herria jasangarriagoa eta justuagoa bihurtzea!

Proiektu honetan, Tolosaldeko 11 herritako 19 ikastetxe elkarrekin goaz, eta gaur egun 7.150 ikaslek, 200 baino gehiago irakaslek eta guraso askok hartzen du parte.



ikasgelatik plazara



Bi ikasturtetan jarraian landu dute Biodibertsitatea Tolosaldeko ikasleek EA2 I ean.

Egindako lanetik herritarrek informatzearen beharra ondorioztatu zenez, ikasturte amaieran “Ikasgelatik Plazara” ekimena burutu zen. Jai giroan, herritarrei eta politikariei biodibertsitatearen inguruko kezka eta babes beharra komunikatu baten bidez irakurtzeaz gain, ekimen honen bitartez ikasleek Tolosaldeko naturguneen inguruan egindako lanak plazaratu dituzte.

Bi saio burutu ziren, maiatzak 22an Tolosan (Biodibertsitatearen Nazioarteko Eguna) eta ekainaren 5ean Villabonan (Ingurumenaren Nazioarteko Eguna). Bideo honetan ekitaldi hauen irudiak dituzue.



Tolosaldeko ikasleek biodibertsitatea aztertu eta gero, ondorengo adierazpena egin dute:

Ikasi dugu biodibertsitatea animalia eta landareen aniztasuna dela.

Animaliak eta landareak oso garrantzitsuak dira gu ongi bizi ahal izateko eta, horrenbestez, horiek babesten saiatu behar dugu. Biodibertsitateak gauzak birziklatzeaz gain, oxigenoa, egurra, janaria, ura, lurrarentzat ongarria... eskaintzen dizkigu.

Hori horrela dela jakin arren, ikasleok egin ditugun azterketetan honako ondorioak atera ditugu: biodibertsitatea ez da behar adina zaintzen; izan ere, elikagaien ekoizpenean pestizidak eta produktu kimikoak erabiltzen dira; bestalde, obra handien eraikuntza, AHT adibidez, ibaiaren egoera desegokia (zabor pilaketa eta landare inbaditzaileak). Honen guztiaren eragile garrantzitsuenetakoa herritarren kontzientzia eta konpromiso falta dira.


Egoera honen aurrean ikasleok konpromiso hauek hartu ditugu: berrerabili eta birziklatuko dugu zakarrontzi egokiak erabiliz, jendeari biodibertsitatearen galerari buruzko informazioa emango diogu eta gai honen inguruko proiektuetan gure iritzia eman eta parte hartuko dugu.

Gainontzeko herritarrei eskaera hau luzatzen dizuegu: guk hartutako konpromisoak zuek ere betetzea. Eta agintariei eskatzen diegu: ardura gehiago izan dezatela, Biodibertsitatearen babesari garrantzi handiagoa emanez hartzen dituzten erabakietan.

Denon artean lor dezakegu!

kiodibertsitatea zaindu, bizitzaz gozatu!!!

Tolosa eta Villabonan egindako “Ikasgelatik Plazara” ekintzan idatzitako manifestu bateratua.



aurtengo partaideak



ALEGIA

- San Juan Herri Ikastetxea: 225 ikasle.
 - Aralar Institutua: 159 ikasle.
- Ikasle kopuru osoa: 384.



ADUNA

Adunako Herri Eskola.
50 ikasle.

ANOETA

Anoetako Ikastola.
331 ikasle.



ASTEASU

Pello Errota Ikastetxea.
254 ikasle.



BERASTEGI

J.A. Muñagorri Eskola.

125 ikasle.



BIDEGOIAN

Txinkorta LHI.

55 ikasle.



IBARRA

Uzturpe Ikastola.

422 ikasle.

IRURA

Irurako Ikastola.


206 ikasle.



TOLOSA

- Hirukide (Jesuitinak-Eskolapioak): 1.138 ikasle.
- Laskorain Ikastola: 1.460 ikasle.
- Orixe Institutua: 566 ikasle.
- Samaniego HI: 643 ikasle.
- Tolosaldea LH Institutua: 352 ikasle.

Ikasle kopuru osoa: 4.159 ikasle.



VILLABONA

- Jesusen Bihotza Ikastola: 561 ikasle.
 - Fleming herri eskola: 299 ikasle.
 - Ernio-bea institutua: 278 ikasle.
- Ikasle kopuru osoa: 1.138 ikasle.



ZIZURKIL

- Jesusen Bihotza Ikastola: 22 ikasle.
- P.M. Otaño Herri Eskola: 145 ikasle.
- San Millan Eskola: 31 ikasle.

Ikasle kopuru osoa: 198 ikasle.



ikasturte honetan ...

Ze gai landuko dugu? ENERGIA

Ikasturte honetan ENERGIA landuko dugu, eskola eta herriko kudeaketan oinarritzkoa den gaia iruditzen zaigu eta. Gure udalak herriko energiaren kudeaketan hobekuntzak bilatzeko plangintzetan murgildurik daude, eta programa honi esker beste behin udala eta ikastetxea eskutik joango gara.

3 erronka ditugu aurrean: energiaren kontsumoa gutxitzea, energia iturri berriztagarrien ezagutza eta erabilera, eta CO₂ bezalako gasen isurketa gutxitzea. Lan asko dugu; beraz, EKIN LANARI!

Zuek ere proiektuaren parte garrantzitsua zaretelako!!

Baina energiaren ingurukoak ez dira aurten jarritako erronka bakarrak, zuen partehartzea lortu behar dugu, zuena bai, gurasoena!!

Proiektu honetan ikastetxeko gainontzeko langileak eta gurasoak garrantzitsuak zarete, baina ordutegi arazoak edo ezjakintasuna medio, gutxi izaten zarete bertan parte hartzen duzuenak. Beraz, aurtengo erronka izango dugu eskola komunitate osoaren partaidetza bultzatzea!! Lagunduko al diguzue?





EA21 irakasle ordezkarien taldea:

Irakasleen lana eta inplikazioa oso garrantzitsuak dira EA21 proiektuekin aurrera jarraitu ahal izateko. Lan handia egiten dute koordinazio bileretan, prestakuntza saioetan eta eskola komunitatearen inplikazioa lortzen. Eskerrik asko!

Turismo jasangarriaren festa: ekainaren 28 eta 29an Larraitzen ospaturiko turismo jasangarriaren inguruko festan, Tolosaldeko naturguneen inguruan ikasleek egindako hainbat lan ikusgai egon ziren bertako jatetxeetan.

Sarituak

Aurreko ikasturtean pozgarria izan zen Tolosaldeko GLHIko institutuak, Samaniego ikastetxeak eta Jesusen Bihotza ikastolak "ESKOLA JASANGARRIA" agiria lortu zutela ezagutzea. Ekainaren 4an Euskadiko Biodibertsitatearen Zentroan egindako ekitaldian, programaren bultzatzaileek ikastetxe hauek egindako lana txalotu zuten.

Zalantzarik gabe, lanean gogotsu jarraitzeko bultzada garrantzitsua izan da. ZORIONAK gure lantaldeko kideei!!



GLHIko institutuaren Oskar Soto, irakaslea eta EA21eko ordezkaria, saria jasotzen.




Samaniego Herri Ikastetxeko zuzendariak, Mikel Izagirrek, saria jaso zuen.



Jesusen Bihotza ikastolako zuzendaria eta EA21eko ordezkaria den Idoia Ariznabarreta

*denon artean
tolosaldea justuagoa
eta jasangarriagoa
lortuko dugulakoan!!!*



tolosakoingurumenzentroa



TOLOSALDEA
GARATZEN